

ERANSKINA

DEIALDIA 2026ko UDAKO IKASTAROAK

(uztaila/ abuztua/ iraila)

1.- Parte har dezaketenak

IVAPeko baldintza hau betetzen duten TEKAZELak:

Udako ikastaro bat eskatu ahal izateko, **aldez aurretik IVAPeko deialdien bidez ikastaroren bat egina izan behar du interesdunak** eta, beraz, ikasprozesua hasia.

Aldi baterako langileek **ikastaroak dirauen bitartean unibertsitatearekin kontratua** dutela egiaztatu beharko dute.

2.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak

- Ikastaroak **HABEk araututako ikastaroetako modulu bat** izan behar du.
- Ikastaroak, **euskaltegiek edo autoikaskuntza zentro publikoek zein pribatu homologatuek** eman behar dituzte.
- Ez da **4. hizkuntza-eskakizuna** prestatzeko ikastarorik onartuko.
- Aurrez aurreko ikastaroek **gutxienez 80 ordukoak** izan behar dute.
- Autoikaskuntza bidezko ikastaroek **gutxienez 70 ordukoak** izan behar dute. IVAPek autoikaskuntzako ikastaroen eskaera **kopuru mugatua** onartuko dio erakunde bakoitzari. Erakunde bakoitzari **lanorduetatik kanpo onartutako eskaera gutziena % 20 onartuko zaio**.

Matrikula-orrien bidez finantzatu ahalko diren **ikastaroak** hauexek dira:

	Lanorduetan	Lanorduz kanpo
*Aurrez aurreko ikastaroa	BAI	BAI
*Autoikaskuntza ikastaroa	EZ	BAI

***Aurrez aurreko ikastaroak:** aurrez aurrekoak, aurrez aurreko telematikoak edota eskola batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoak. Baliabidea edozein dela ere, irakasleak eta ikasleak ordutegi zehatz bat bete behar dute elkarerraginean, hau da, eskola 08:00etatik 10:00etara baldin bada, bi ordu horietan elkarerraginean egongo dira, aurrez aurre zein bideokonferentziaz. Ikasle batzuk ikasgelan egotea eta beste batzuk urrutitik jarraitzea ere gerta liteke.

***Autoikaskuntza ikastaroak:** Euskaltegiek zein autoikaskuntza zentroek berariaz lineako ikastaroak emateko dituzten programen bidez ikastea. Nahiz eta tarteka tutoretza edo mintza saioak izan, oro har, lan gehiena bakoitzak bere kasa antolatzen du, programa horiek bakarka eta zehaztutako ordutegirik gabe erabilita.

3.- Ikastaroen helburuak

Ikasleek ikasturtean zehar egindakoa finkatu eta sendotzeko helburuz eskaintzen ditu IVAPek udako ikastaroak, eta, 2026-2027 ikasturtera begira (202 ez da kontuan hartuko udako

ikastaroan langileak egin duen maila, 2025-2026 ikasturtean edo aurrekoetan gainditu duen azken maila baizik.

4.- Eskakerak

Interesdun bakoitzak, **gehienez ere, hiru ikastaro** eska ditzake.

Eskakerak Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia beteaz aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hizkuntza-prestakuntza/tekazelen-hizkuntza-prestakuntza/udako-euskara-ikastaroen-deialdia-2026>.

Eskatera bakoitzeko inprimaki bat bete behar da.

Eskatera egin ondoren, eskatzaileak eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko du beren helbide elektronikoan. Berrespen hori UPV/EHUren erregistro elektronikoan erregistratuko da:

https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/catalogo/registro_electronico.

Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Nagusiaren oniritzia behar da ikastaroa **lanorduetan** egingo bada. Eskariak egiteko azken eguna helduta langileak ez badu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango du baimen hori. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko du, azalduaz zergatik ez duen nagusiaren baimenik lortu.

Nagusiek baimena ukatuz gero, txostena egin beharko dute **baimena ez emateko arrazoiak azalduta**. **Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko**. Txostenak Euskalduntze Batzordeari bidali beharko zaizkio, 10 laneguneko epean, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak liberazioetarako onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duenetik kontatzen hasita. Epe hori

erreklamazio egunekin bat etorriko da (**maiatzaren 16tik 24ra**) eta **txostena helbide honetara bidali behar da: euskara-plangintza@ehu.eus.**

Ikastaro trinkoa langilearen **oporraldian** egitekoa bada, **ez da nagusiaren baimenik behar.**

Ikastaro hauek egingo dituzten langileak ez dira inolaz ere euren lanpostuetan ordezkatuak izango.

5.- Epeak:

- **Eskaerak aurkezteko epea: apirilaren 15etik 30era (biak barne).**
- **Behin-behineko zerrendak: maiatzaren 15ean** argitaratuko dira **ehutauletan** eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzako webgunean.
- **Erreklamazioak egiteko epea: maiatzaren 16tik 24ra (biak barne).** Erreklamazioak deialdi honetako 4. puntuaz azaldutako prozedurari jarraituz egingo dira, Euskara eta Hizkuntza Plangintzaren Errektoreordetzaren webgunean eskuragarri dagoen zuzenketa-inprimakia, dokumentazioa eta erreklamazioak beteaz.
- **Behin betiko zerrendak.** Euskalduntze Batzordea bildu ostean, **ekainaren 3tik aurrera** argitaratuko dira eta eskaerak IVAPera bidaliko dira.

6.- Udako ikastaroen antolamendua

Baldintzak betetzen ez dituzten eskaeren kasuan, IVAPek ukatu egingo ditu eta unibertsitateari jakinaraziko dio, honek interesdunari horren berri emateko, arrazoiak zehaztuz.

Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, IVAPek langileentzako **matrikula-kode pertsonalizatuak** bidaliko ditu UPV/EHUra (ekainaren bukaeran). Interesatuak eurak matrikulatuko dira aukeratzen duten ikastaroan; horretarako, matrikula orria aurkeztu beharko dute euskaltegian edo autoikaskuntzan zentroan.

Langilea **inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli beharko du matrikula orria** Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzara.

Matrikula-kodea itzultzea ezinezkoa gertatuz gero, galdu edo apurtu delako, langileak Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzari idatziz jakinarazi beharko dio ez dela inon matrikulatu.

7.- Euskaltegien eskaintza:

Euskaltegi bakoitzak bere eskaintza berezitua egiten du: egutegiak, iraupena, ikasgelak, etab. Tokiari dagokionez, ikastaro batzuk euskaltegietan ematen dira eta beste batzuk, aldiz, bestelako etxe edo herrietan. Horregatik langileak eskaera Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzan aurkeztu aurretik, euskaltegi/barnetegira deitu beharko du aukeratutako ikastaroaren datak egiaztatzeko. **HABEK eta AEK-k egiten duen eskaintza oraindik argitaratu edo zehaztu gabe badago, gutxi gorabeherakoa jarri beharko du eskatzaileak formularioan, gero aldaketa txikiren bat egon arren.**

8.- Ordu-kreditua udako ikastaroetan.

Ordu-kredituari dagokionez, Lankidetzta Hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraituko zaio. Ondorioz, **udako ikastaroetan emandako orduak gastatu egiten dute langilearen ordu-kredituaren saldoa**. Horretarako, ikaslearen taldean lehenengo klase egunetik hasita eta ikastaroa amaitu arte emandako eskola-orduak zenbatuko dira. Langileak kontuan hartu beharko du hori 2026-2027 ikasturterako, bere ordu-kreditua positiboa izan behar baita ikasturte hasieran.

Udako euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da 2025-2026 ikasturtearen hasieran ordu-kredituaren saldoa positiboa izana. Modu honetan aplikatuko da:

- **2025-2026 ikasturtea urrian** hasi zuten ikasleei ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditu negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.
- **2025-2026 ikasturtea otsailean** hasi zuten ikasleei goiko paragrafoan azaldutako printzipioak aplikatuko zaizkie.
- Azkenik, 2025-2026 ikasturtean matrikulatuta egon ez direnak baina 2026ko udako ikastaroa hasiko duten ikasleei, eskaera IVAPen hartzen denean aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenek ezin izango dute udako ikastaroa egin. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, saldo positiboa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera. Aurreko kasuetan bezala, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko zaizkie.

9.- Matrikularen ordainketa

Langileek ez dute matrikularik ordaindu behar. IVAPek hartuko du bere gain ikastaroen matrikularen ordainketa; barnetegien kasuan, baita ostatua eta mantenua ere. IVAPek ez du bere gain hartuko bestelako gasturik, hala nola, joan-etorriak edo materialak.

10.- Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta datuak babesteari buruz indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da izaera pertsonaleko datuak «EAEko administrazio publikoetako langileen euskalduntzea» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla. Tratamendu horren helburua izango da EAEko administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak kudeatzea eta ebaluatzea, eta, hala badagokio, programatzea eta bertaratzea gestionatzea, bai eta hizkuntza-gaikuntzagatik esleitutako ordu-kreditua kudeatzea ere.

Tratamendu horren arduraduna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza izango da, eta haren aurrean, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko Ordezkararen aurrean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta errebokatze eskubideak baliatu ahal izango dira, baita aplikatu beharreko araudiak aurrez ikusitako beste edozein eskubide ere.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen buruzko datuak EAEko langileen arloan eskumena duten erakundeei jakinaraziko zaizkie (bertaratzeari eta ebaluazioari buruzko informazioa); Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalizazio-planaren betetze mailari buruzko ebaluazio-txostena egiteko (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. artikulua); eta HABeri - Helduen Alfabetatze eta

Berreuskalduntzerako Erakundeari - (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez). Datuak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legeak kontrakoa agintzen ez badu.

Datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta xehatua hemen kontsultatu dezakezu:

https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0215_eu.html